

Cambio Climático en Navarra y su impacto en la Salud Laboral

UPNA, 2 de junio de 2022



El **Cambio Climático (CC)** es una realidad inequívoca y supone uno de los mayores retos medioambientales para la humanidad.

Según la Organización Mundial de la Salud, el CC ya **está afectando a la salud** de múltiples maneras, por ejemplo, provocando muertes y enfermedades por fenómenos meteorológicos extremos (olas de calor, tormentas e inundaciones), alterando los sistemas alimentarios, aumentando las zoonosis y las enfermedades transmitidas por los alimentos, el agua y los vectores, etc.

Desde el año 2017 Gobierno de Navarra desarrolla el proyecto “LIFE-IP NAdapta-CC Estrategia integrada para la adaptación al Cambio Climático en una región, Navarra” (LIFE-NAdapta), como aportación de la Comunidad Foral al compromiso internacional frente al CC.

El Servicio de Salud Laboral del Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra (ISPLN) participa en el LIFE-NAdapta implementando la acción “**Vigilancia de las condiciones laborales y las consecuencias del cambio climático; temperaturas extremas en la salud de los trabajadores**”, cuyo objetivo principal es conocer cómo pueden afectar las condiciones climáticas extremas a la salud de la población laboral.

Para dar cumplimiento a dicho objetivo desde junio de 2019 a diciembre de 2021 se desarrolló la **campana de visitas a empresas** denominada “Exposición de la población trabajadora a las temperaturas extremas”.

Los resultados de esta campaña ponen de manifiesto que **existen puntos de mejora en la prevención** de la exposición a temperaturas extremas en la población laboral navarra. Por ejemplo, **la identificación del riesgo es incorrecta** y no se aplican metodologías específicas para su evaluación. Esto puede suponer una infravaloración del nivel de riesgo que hace que las medidas planificadas resulten insuficientes o incorrectas y que, por lo tanto, puedan materializarse daños a la salud de la población trabajadora expuesta.

Por último, y no menos importante, la campaña de visitas ha evidenciado la **existencia de personal vulnerable** a la exposición a temperaturas elevadas, en su mayoría pertenecientes a los siguientes grupos: personas con edad, personas con patologías crónicas (cardiovasculares, diabetes, obesidad etc.) y personas que toman determinada medicación. Se ha observado la falta de identificación de este personal vulnerable y, por consiguiente, la ausencia de medidas preventivas específicas para dicho personal.

Por este motivo, desde la Sección de Vigilancia de la Salud en el Trabajo del Servicio de Salud Laboral, y con el objetivo de destacar la importancia de identificar a la población trabajadora expuesta a altas temperaturas, se ha elaborado la “**Guía de Orientaciones para Vigilancia de la Salud**”. Se trata de un documento práctico, de ayuda a los Servicios de Prevención, para la realización de una correcta vigilancia de la salud de la población trabajadora expuesta a altas temperaturas y, dentro de este grupo, a las personas con una especial vulnerabilidad, para así poder proponer medidas preventivas, tanto individuales como colectivas.

Cambio Climático en Navarra y su impacto en la Salud Laboral

UPNA, 2 de junio de 2022



Dirigido a

- ✓ Profesionales técnicos y sanitarios de servicios de prevención.
- ✓ Empresas cuya actividad pueda implicar riesgo de exposición a temperaturas extremas.
- ✓ Organizaciones Sindicales y Delegados y delegadas de Prevención de Riesgos Laborales.

Lugar

Campus de la UPNA. Sala de Grado de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería Agronómica y Biociencias (ETSIAB). Edificio Departamental Los Olivos.

Programa

9:00 Recepción y entrega de documentación

9:15 Presentación de la Jornada

María Ángeles Nuin Villanueva

Directora Gerente. Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra (ISPLN)

9:30 Cambio climático

Peio Oria Iriarte

Delegado territorial de AEMET en Navarra

10:15 LIFE-NAdapta: Área de salud

Estrella Miqueleiz Autor

Inspectora del Salud Pública. Servicio de Seguridad Alimentaria y Sanidad ambiental (ISPLN)

11:00 Descanso

11:30 Campaña de visitas “Exposición de la población trabajadora a temperatura extremas”

Amelia Aguilar Bailo

Técnica de Prevención. Servicio de Salud Laboral (ISPLN)

12:15 Guía de orientaciones para la Vigilancia de la Salud

Nieves Sagüés Sarasa

Médica especialista en medicina del trabajo. Servicio de Salud Laboral (ISPLN)

12:45 Coloquio

Moderadora: Amelia Aguilar Bailo

Técnica de Prevención. Servicio de Salud Laboral (ISPLN)

13:30 Cierre

Estrella Extramiana Cameno

Jefa del Servicio de Salud Laboral (ISPLN)

Klima aldaketa Nafarroan eta horren eragina lan osasunean

NUPen, 2022ko ekainaren 2an



Klima aldaketa zalantzarik gabeko errealitatea dugu, eta ingurumenaren arloan gizarteak dituen erronka handienetako bat da.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, klima aldaketa hainbat modutan **ari da eragiten osasunean**; adibidez, muturreko fenomeno meteorologikoek (bero boladak, ekaitzak eta uholdeak) heriotzak eta gaixotasunak ekarri dituzte, elikadura sistemak nahaspilatu dira, elikagaien, uraren eta bektoreen bidez transmititutako gaixotasunak eta zoonosiak areagotu dira, etab.

2017. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuak proiektu hau garatzen du: LIFE-IP NAdapta-CC, eskualde bat –Nafarroa– klima aldaketara moldatzeko estrategia integratua (LIFE-NAdapta), Foru Komunitateak klima aldaketaren aurkako nazioarteko konpromisoari ekarpen bat egiteko.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) Lan Osasunaren Zerbitzuak LIFE-NAdaptan parte hartzen du, **“Lan baldintzak eta klima aldaketaren ondorioak zaintzea; muturreko tenperaturak langileen osasunean”**, ekintzaren bidez; ekintzaren helburu nagusia da jakitea nola eragin diezaioketen muturreko klima baldintzek langileen osasunari.

Helburu hori betetzeko, 2019ko ekainetik 2021eko abendura bitartean, **enpresak bisitatu ziren kanpaina honen barruan**: “Langileen esposizioa muturreko tenperaturen aurrean”.

Kanpaina horren emaitzek frogatu dute Nafarroako langileentzako **prebentzioa hobetu daitekeela** muturreko tenperaturekiko esposizioari dagokionez. Adibidez, **arriskua ez da behar bezala identifikatzen**, eta ez da metodologia espezifikorik aplikatzen arrisku hori ebaluatzeko. Horrek berekin ekar dezake arriskua gutxiatea, eta, horren ondorioz, planifikatutako neurriak nahikoak edo zuzenak ez izatea, eta, beraz, esposiziopeko langileen osasuna kaltetzea.

Azkenik, eta hori bezain garrantzitsua, bisitek agerian utzi dute **langile batzuk kalteberak direla** muturreko tenperaturen aurrean; bereziki, honako hauek: adinekoak, patologia kronikoak dituztenak (gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, obesitatea, etab.) eta botika jakin batzuk hartzen dituztenak. Ikusi da ez direla identifikatu langile kaltebera horiek, eta, beraz, ez dagoela prebentzio neurri espezifikorik langile horientzat.

Hori dela eta, Lan Osasunaren Zerbitzuko Laneko Osasuna Zaintzeko Atalak, muturreko tenperaturarekiko esposiziopean lan egiten dutenak identifikatzearen garrantzia nabarmentzeko,

Osasuna Zaintzeko Orientazio Gida egin du gaztelaniaz. Dokumentu praktiko bat da, prebentzio zerbitzuei laguntzeko, muturreko tenperaturen esposiziopeko langileen osasuna behar bezala zaindu dezaten, bereziki kalteberenak, eta, horrela, prebentzio neurri kolektibo eta banakakoak proposa ditzaten.

Klima aldaketa Nafarroan eta horren eragina lan osasunean

NUPen, 2022ko ekainaren 2an



Norentzat

- ✓ Prebentzioko zerbitzuen profesional sanitarioak eta teknikariak.
- ✓ Muturreko temperaturen esposiziopean lan egiteko arriskua duten enpresak.
- ✓ Sindikatuak eta laneko arriskuen prebentzioko delegatuak.

Tokia

NUPeko campusa. Nekazaritzako Ingeniaritzako eta Biozientzietako Goi Mailako Eskola Teknikoko gradu aretoa. Olibondoak eraikina.

Egitaraua

9:00 **Harrera, eta dokumentazioa ematea**

9:15 **Jardunaldiaren aurkezpena**

María Ángeles Nuin Villanueva

Zuzendari kudeatzailea. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (NOPLOI)

9:30 **Klima aldaketa**

Peio Oria Iriarte

AEMETeko Nafarroako lurralde ordezkaria

10:15 **LIFE-NAdapta: Osasun arloa**

Estrella Miqueleiz Autor

Osasun Publikoko ikuskatzailea. Elikagaien Segurtasunaren eta Ingurumen Osasunaren Zerbitzua (NOPLOI)

11:00 **Atsedena**

11:30 **“Langileen esposizioa muturreko temperaturen aurrean” bisiten kanpaina**

Amelia Aguilar Bailo

Prebentzioko teknikaria. Lan Osasunaren Zerbitzua (NOPLOI)

12:15 **Osasuna Zaintzeko Orientazio Gida**

Nieves Sagüés Sarasa

Laneko medikuntzako mediku espezialista. Lan Osasunaren Zerbitzua (NOPLOI)

12:45 **Solasaldia**

Moderatzailea: Amelia Aguilar Bailo

Prebentzioko teknikaria. Lan Osasunaren Zerbitzua (NOPLOI)

13:30 **Amaiera**

Estrella Extramiana Cameno

Lan Osasunaren Zerbitzuko burua (NOPLOI)